

# E

---

Euskara biziberritzearen zentzuaz eta galdera honen erantzunak markatzen digun euskalgintzaren oinarri, bide eta norabideaz egiten da hausnarketa. Gizarte hegemonikoan bizirautera bideratutako euskalgintza baino, bestelako bizi eredu eta komunitate baten eraikuntzaren baitan irudikatzen da euskara. Honela soilik ikusten da posible ondoko hamarkadetan euskararen biziberritzeak eskatzen duen energia eta atxikimendu sendoareen birsortzea.

**Giltza-hitzak:** Euskalgintza. Mundu ikuskera. Hegemonikoa. Biziberritzea. Motibazioa.

Gazteak ameslariak omen gara, kritikoak eta inkonformistak. Hala omen.

Gazte begiradatik, euskal komunitatearen ametsen marrazte lanean, ekarpen txiki bat egiteko galdegin zidaten. Baikorra izateaz gain, gatz eta piper pixka bat eduki zezala.

Sukaldari umila legez, aitortuko dizuet orain kezka zerbait sartu zaidala, ea ez ote diodan gatz edo piper soberaxko bota eta digeritzeko moduan egonen den.

Enetik mintzatuko naiz, azkenaldian buruan itzulika dabilzkidan gogoeten zertzeladatxo batzuk zuekin partekatu nahian.

Lehenik eta behin, eta puntu honetan jarri nahiko nuke esatera noanaren azpimarra, euskara mundu ikuskera ezberdin baten eramaile bezala amesten dut.

Mundu globalizatu kapitalista honetan, hizkuntza gutxituak biziberritzearen zentzua horretan datza enetzat. Hizkuntza bat gizaki izateko, bizitzeko eta pentsatzeko modu ezberdin baten eramaile den heinean ezin genezake galtzen utzi, gure burua boteredun hauen peko bizitza uniformizatzailean kondentatzea bailitzake.

Horregatik kezkatzen nau mundu ikuskera hegemonikoaren baitan pentsatzen duen euskalgintzak. Kezkatzen nau, amesten

dugun komunitatean, euskararen etorkizuna bizi eredu kapitalistaren sostengu diren erakundeetan, enpresa liderretan, kontsumo iragarkietan, banketxeetan, telebistako izarretan eta abar ikusteak.

**Nola bizi nahi duen pentsatzen duen euskal komunitatea amesten dut, sistema honetan nola biziraun pentsatzen duen komunitatea baino.**

Ez iezaiozue mesedez, azkarregi jarri etiketa, politikoa edo dena delakoa esatera noanari. Ez dut ukatzen euskarak espazioak irabazi beharra jendarte honetan; baina barneko motibazio sakonari buruzko galderarekin nator; eta zalantzak dauzkat sistema hegemonikoko jendarte estandar batean, euskararen motibazioa hamarkada askotan birsortuko ote den. Ez dakit albiste ona ala txarra den hau: baina intuitzen dut, sakoneko balioekin lotua egonen dela euskararen geroa, ez dela kontu tekniko bat izanen.

Zentzu horretan, aitortuko dut, azken aldian nagusi ikusten ditudan planteamendu estrategiko eta teknikoek hotz uzten nautela, eta hotz uzten dituztela ene inguruko euskaldun gazte batzuk.

Dimentsio sakonago horren inguruko gogoeta egin nahi nuke hemen. Bereziki uste baitut, dimentsio sakonago hori zaindu eta elikatu gabe ez dela berrituko euskararen ametsa, euskara garatzeak beharko duen energiari. Argi da, biztanleriaren zati handi batek ez duela horrelakorik eskatzen, eta gehiengo errealtate estandar batean kokatzen dela, eta euskarak sektore horiek guztiak behar dituela. Baina euskararen ametsari eta energiari eusten dion gune zentralak bere gasolina galduko du balio sakonagoetatik deskonektatzen bada, edo berritzen eta elikatzen ez baditu. Euskararen etorkizuna adar asko dituen estrategia multzo tekniko bat ere bada, bai, baina bere erdigunean utopia bat da, zentzu positiboan, eta utopia hori edo beste balio eta amets batzuen lurraldean elikatzen da, edo itzaliz joanen da.

Hau da, behintzat, nigan eta ene inguruan sumatzen dudanetik sorturiko intuizioa. Eta uste dut euskararen ahaleginaren iraganari begiratzeak intuizio hori indartzen digula.

Euskarak berekin daramakien mundu ikuskera berezia zein den, nolakoa den pentsatzen jarrita, eni natura eta arbasoekin loturiko hizkuntza bat heldu zait burura. Hizkuntza guztien parekidetasun mezua darama euskarak, “bizi eta bizitzen utzi”

duen komunitate baten balioak munduko harremanak pentsatzeko beste eredu baten haziak izan daitezke. Euskara komunitate ttipi baina sendo bateko lotura hertsia, intimoa, sakona izan da; Erakunde eta boterearen hizkuntza baino etxeko eta lagunarteko hizkuntza, komunitatearen hizkuntza, zaintzarena, maitasunarena, umorea eta dibertitzearena, kulturaren hizkuntza izan da euskara. Komunitate ezberdin bat euskaldunena, ttipia eta zapaldua baloratzen duena. Erresistentzia, askatasunerako borroka eta jendarte hobe baten ametsa lotzen ditut euskararekin; dena ematearen eta elkartasunaren kultura garatu duen euskal komunitatea. Horiek dira nik sakondu edo garatzea amesten dudana euskararen mundu ikuskeraren parte izan daitezkeen oinarri batzuk. Holakoak izan behar lirateke, ene ustez, euskalgintzaren oinarri, arrazoi, bide eta norabide.

Oinarri horietatik egin beharko genuke euskal komunitate hau sendotzeko lana. Lan hau, noski, 7 lurraldeetan eginen dugula amesten dut. Euskal komunitatearen barneko ttipi eta bazterrekoak indartu eta horiengandik indartzen den euskalgintza dut ametsgai. Iparralde eta hegoaldearen arteko arrakala geratzeak lehentasun beharko luke gaurdanik; Gure eguneroko praktiketan hautatuko dugu hori, bizia elkarrekin irudikatu bakarrik ez, elkarrekin biziz.

Bestalde, euskara oinarri eta elkargune duela, kultur aniztasunak elikaturiko euskal komunitatea amesten dut. Etorkinak adibidez, euskal komunitatearen integratzaile baino, euskal komunitatearen egile irudikatzen ditut.

Balio horietatik eraikiko genuke munduko identitate gutxitu desberdinekiko lotura sendoa. Sistema hegemonikoaz kanpoko bizi ikuskera duten komunitateen elkar elikatzea, elkartasuna eta elkar lana amesten ditut.

Ez dut, hemen, astirik, euskararen mundu ikuskera ezberdin honek euskalgintzako alor desberdinetan markatzen dizkigun norabideak garatzeko, baina adibide bat jarriko dizuet.

Euskal kultur sorkuntza oparo eta ugari bat amesten dut nik ere. Ene ametsetan baina, ez da euskal kultur sorkuntza finantzatu eta kontsumitu dadin eskatzen, bere biziraupena ez dago diruaren menpe. Amesten dudana euskal komunitateak balio ekonomikoa ez, zinezko balio soziala ematen dio kultur sorkuntzari, benetan nahi duelako eskaintzen dio indar eta denbora.

Bide honetan, Durangoko Azokari begira baino, Xiberoa, Lapurdi eta Baxe Nafarroako herrietako plazei begiratzeko unea dela uste dut. Han gero eta bizi eta herrikoiago sumatzen dugu euskal kultur sorkuntza. Begiratu besterik ez dago zenbat libertimendu, pastoral eta kabalkada egin diren azken urteetan eta zenbat herritan. Herriz herriko antzerki, kantu eta dantza sorkuntzek gorpuzten dute euskal identitatea, jendeak sortu eta bizi du kultura, ez du saldu edo kontsumitzen. Horien buruari begirako sortzaile indibidualak baino, sortzaile kolektiboak dauzkagu, komunitatearen sortzaile. Sorkuntzak zentzu kolektiboa du gurean, jendarte arazo eta komunitatearen etorkizuneko ametsaz mintzo zaizkigun antzerki kritiko eta inarrosaileak ditugu herriko plazetan. Dantza urrats berri eta arbasoen kantuak, bertso zirikatzaileen artetik, gure nortasuna gorpuztuz birsortzen.

Kultura aisialdia izanen ez den komunitate bat amesten dut, kultura bizimodua izanen dena.

Bide horretatik, ene ametsetan, euskara komunitate baten bizi hautu sendoa izanen da. Euskalgintza instituzionaletik, euskarazko gaitasunean eta hitz egiteko aukeretan eman daitezke urratsak baina lehen esan gisan, uste dut, bide horretatik, ezin direla euskararekiko atxikimendu sakona eta konpromiso sendoa ukanen duten hiztunak bermatu.

Euskarak izan nahi dugunetik hurbilago egiten gaituelako, euskararako hautu irmoa beste bizi eredu baten eraikuntzaren baitan egin duen euskal komunitatea dut ametsgai.

Orduak eta orduak mintza gintezke honetaz baina gatz eta piper gutxixeago izanen duen bazkarirako ordua ere badugu eta, besterik gabe, sistemaren eskemetatik at amesteko esan nahi nizuen, amesteak bestela ez baitauka zentzurik!